

Kinpart⁴⁹

www.hurtzaroikastola.net

Hurtzaro
ikastolako
aldizkaria

2011ko
MARTXOA





txinpart⁴⁹

www.hurtzaroikastola.net

L.G.: SS-129/2001



Aurkibidea

Santa Ageda	4
Inauteriak.....	8
Agenda 21	17
Konfiantzan ikastola	21
Xabier Lete	26
Oiartzo-Diploma banaketak.....	27



ARGITARATZAILEA

Haurtzaro ikastola

Elorondo, z/g

20159 Oiartzun

© 943 49 16 59

oiartzun@ikastola.net

DISEINUA, MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA
antza Komunikazio Grafikoa

Neguko uzta-aren seinaletan

Gabonetako oporrekin batera etorri zitzagun negua, eta Txinpart honekin batera, kaixo esanez, hemen dugu udaberria. Aurreko hiruhilekoa bezalaxe, hau ere bizia bezain aparta izan dugu.

Bigarren Txinpart honetan ohiko egiturari atsedean txiki bat ematea otu zaigu, eta neguan burutu ditugun hainbat ekintzari buruz informazio zehatz eta sakonagoa ematea. Hemen ditugu, besteak beste, Eskolako Agenda 21, Santa Ageda bezpera, Konfiantzan ikastola matrikulazio kanpaina eta pasa berri ditugun inauteriak. Ekintza garrantzitsuak, landu beharrekoak, erakutsi beharrekoak...

Eguneroko lanean bezainbesteko indarra eta ilusioa jarri dugu ekintza hauek guztiak emaitza aberatsa eta ona izan dezaten.

Eta lortu dugula uste dugu.

Udaberriari
pozez egin dioqu
ongi-itorria!

SANTA Ageda

Santa Ageda bezpera dugu Euskal Herriko eguna, etxe guztiak kantuz pozteko aukeratua deguna. Halaxe dio auzoz auzo abesten ditugun bertsoetako batek eta, gurean behintzat, ezin esan gezurra denik. Duela urte asko aukeratu genuen otsailaren 4a, Santa Ageda bezpera, etxe guztiak kantuz pozteko eguna. Eta asmo horrekin hartzen ditugu makilak urtero-urtero, aspaldiko ohiturari jarraipena emanez.



Txikienetatik handienetara, ahots eta belarri finenetatik kaxkarrenetara, denok bizitu genuen egun hau, modu batera edo bestera. Beraz, hau edo bestea, konta dezala bakoitzak berea!

HAUR HEZKUNTZA

Zorion etxe hontako denok... Gelan gaudela ikasleen hotsak entzuten ditugu. Santa Agedaren abestia entsaiatzen ari dira. Hotsarekin batera makil kolpeak ere entzuten dira. Haurrek galdezen dute: "zertan ari dira?"

Guk beren jakin-mina ase nahian adierazten diegu zertan ari diren eta jarraian kantatzeari ekiten diogu, makilarik gabe. Handitzen direnean izango dute aukera makil eta guzti kantatzeko.

Santa Ageda bezperan LHkoak auzoz auzo kantatzera abiatu aurretik, anfiteatroan guretzat abestu dute eta arreta handiz entzun ditugu. Oso polita izan da eta harrigarria hainbeste makilaz kolpea jo arren bakarria balitz bezala entzuten zela.

LH1. zikloa

Gure ikasleak ez dira Santa Ageda bezperan Oiartzunen zehar abesten ateratzen, baina guk ere egun hori ospatzen dugu. Arratsaldean LH 3. mailatik LH 6. mailara arteko ikasleak, auzoz auzo abesten atera aurretik, ikastolaren kanpoaldean abesten dute.

Emanaldi honetara HH 1.etik hasi eta LH 2. mailara bitarteko ikasleak gonbidatuta daude. Saiotxo honek balio die LH 2. mailako ikasleei Santa Agedaz eta gure ohiturez gozatzeke ez ezik, aurre-motibazio gisa ere bai. Izan ere, hurrengo urtean ikasle horiek aterako dira abestera.



LH 2. zikloa

Gure ikasleek oso gertutik bizitu dute Santa Ageda bezpera, ziklo honetan joaten baitira lehenengo aldiz auzo batera abestera. 3. mailakoentzat dena izan da berria: entseguak egitea, makilak ekarzteaz, Iturriotzera abestera joatea... 4. mailakoei berriz, zikloko beterranoak izaki, gazteagoei bidea erakustea egokitu zaie aurtengoan, eta oso txukun bete dute paper hori.

Abestia ikasi eta behin eta berriz entseatu ondoren, txapela buruan eta makilak eskuan kalera irten ginen, beste ziklokoekin batera pare bat aldiz Santa Agedako bertsoak abestera. Ahotsa ondo berotu ondoren, ilaran jarri eta Iturriotz aldera abiatu ginen.

Beti bezala, Garbuno baserria izan zen ikasleek osatutako trenaren lehen geltokia. Bertan, "Zuberoa" jatetxeko langileak leihoan zeudela, bertsoak abesteari ekin genion, ilusio handiz. Bukatutakoan, haietako bat guregana hurbildu zen, eta horrela esan zigun:

- Non bota behar dugu dirua?

Guk, harrituta baina aldi berean gustura eta harro, ez genuela dirurik biltzen esan genion, ohitura zaharra mantendu, ondo pasa eta etxeak kantuz pozteko egiten genuela hori, eta aurrera jarraitu genuen.

Garbuno eta inguruko etxeak poztu genituen, oso ondo pasa genuen. Eta, noski, hurrengo urteetan ere ohitura zaharra mantentzeko asmoarekin itzuli ginen ikastolara.



LH 3 ZIKLOA



Santa Ageda bezperan, gure zikloak ere ospatzen dugu Cataniako Agata santuaren eguna.

Hautzaro ikastolako ikasleek urtez urte mantendu nahi dugu ohitura zahar hau herriko txokoetan koplak kantatzuz. Hain zuzen, LH 5. eta 6. mailako ikasleak ordu bi eta erdietatik lau eta erdietara aritzen gara kantuan kalez kale auzoak alaituz.

LH 5. eta 6. mailakoek koplak aldeztu aurretik entsaiatzen ditugu, gelaka, Amaia musikako irakaslearekin. Ondoren, Agata egunaren bezperan, bakoitza bere makilarekin, erritmoa markatzeko lurrean joaz, txapela eta lepoko zapi laukiduna jantzita ikastolako anfiteatroan elkartu gara Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako gainerako ikasleekin batera koplak kantatzeko auzoetara abestera atera aurretik. Hain zuzen, gu Elorrondo kalean (kiroldegian), Arraskularren, Euskal Herria plazan, Doneztebe plazan eta Landetxan barrena ibili gara giro aparta jartzen. Lastima jende gutxi atera izana leihotara edo balkoiara! Gu ez gara diru edo janari eske ateratzen baina aurreko emakume batek bere etxeko leihotik mandarinak bota dizkigu eta... hura zoramen! Ederki pasa dugu.



DBH 1



Santa Ageda bezperan, urtero bezala tradizioa jarraituz, txapela buruan eta makila eskuan, diru eske joan ginen kantuan, Elizalde auzoan zehar.

Gure artean 5 koplari aritu ziren Antton Kazabonek prestatutako koplak kantatzen.

Arratsaldeko 5:30ean abiatu ginen ikastolako aparkalekutik. Main-direa janariz eta diruz bete ondoren, ikastolara itzuli ginen 7ak alde-ra, merezitako ogitartekoa dastatzera.

Arratsalde ederra igaro genuen DBHko ikasleok, koplak dioen bezala, "ohitura zaharrak jarraituz".



DBH 2



Santa Ageda bezperan, ikastolakook eskean atera ginen ohitura zaharrak mantendu nahian. Txapelak buruan eta makilak eskuan kantu-kantari ibili ginen etxez etxe.

DBH 2ko ikasleoi Altzibarren abestea egokitu zitzaigun eta 17:30ean Martintxo plazan bildu ginen hasiera emateko. Altzibarko kaleetan barrena abiatu ginen oinez batzuetan, kale-jiran bestetan, baina beti ere, umore onez etxe atarietan kantari. Bukaera aldean, parkean txorizo ogitartekoak jan genituen eta tertulia goxoan aritu ondoren etxera itzuli ginen.

Eguraldia lagun izan genuen eta primeran pasa genuen. Egun ederra izan zen!

Maialen Elorza, Maider Olaizola eta Maialen Stephens



DBH3



Urteroko ohitura jarraituz, DBH 3. mailako ikasleok Iturriotz auzoa hartu genuen kantuan aritzeko lekua. Makilak astinduz eta kopla zaharrak kantatuz ikasbidaia diru pixka bat lortzeko asmoz aritu ginen.

Arratsaldeko 5:30ean elkartu ginen ikasle, irakasle eta bi koplari, beheko soroan. Ahotsak apur bat berotuz, lehenengo saioa egin genuen eta ondoren Garaño baserritik hasita, beheeraka, auzo guztian zehar abestu genuen.

Aurtengo ekitaldian berritasun bat eduki genuen: etxe edo baseri bakoitzean bi koplariak bertso bana eskaini zizkieten etxeke andre edo nagusiei. Horrela, Koikile eta Nieves Gure Ametsakoak, Etxenagusiko Miren, Garañoko Marijosefa, Juaneneko Maritere eta Anita, Perotxeneko Saez de Egilaz familia, Etxeberriko Txuriotarrak... jaso zituzten gure esker ona azaltzeko bertsoak.

Gustura bukatu genuen gure jarduna. Izan ere, sos batzuk lortu genituen, usadio zaharrari beste urtebetez jarraitu genion eta merienda janez etxera abiatu ginen.

**ESKERRIK ASKO ITURRIOTZ,
ETA HURRENGO URTEA ARTE!**



DBH 4



Eta ikastolako beteranoenak izanik, guk ere besteak bezalaxe, Santa Ageda bezperako ilunabarrean, ohitura zaharrari jarraituz, Ugaldetxotik ikastolarako ibilbidea egin genuen 17:30etik 19:30era bitartean. Mairidire zuria esku artean hartuta, bertso eta kopla kantari jardun genuen ikasbidaia diru eskean. Bi koplari ezin hobeen laguntza izan genuen: Oskar Ibarguren eta Gotzon Aizpiolea. Gustura aritu ziren gurekin kantu kantari eta baita gu ere beren koplak entzunez.

Lehenengo ikasleok ematen genion hasiera ZORION ETXE HONTAKO DENOI kantatuz eta jarraian koplariak jarduten zuten. Hona hemen adibide gisara Tolarietan kantatutako kopla batzuk:

Arrazoi duzu hemen dirurik
dutela nahikoa nekez
baina geldirik egonez gero
mairidirea ezin bete

Kantu kantari eta eskean
guk jatorrak dirudigu
"Suspen" atona hemen bizi da
zeozer botako digu

Gaur ez naiz ari brometan eta
esaten dizuet benetan
Tarragonara joango zarete
ta bestela bizikletan

Lehen koplatan aritu gera
ikaslez aho beteta
irakasleei kanta iezagun
pixkat merezi dute ta.

Beitu parean daukagun hori
hain tente dago horrela
ez dakit baina iruditzen zait
ho(r)i Haurtzarokoa dela

Benga Argiñe eskatzen dizut
mesedez eta faborez
kopla tiki bat bota zaiguzu
euskeraz edo inglezaz.

...

...

Koplen ondoren ikasleok berriro makilen kolpeekin batera
SANTA AGEDA BEZPERA DUGU...

Eta Elorondora iritsita, ikastolan bokadilo bana janez amaitu genuen. Hemendik eskerrik beroenak bidaltzen dizkiegu gu entzuteratera atera eta dirua edo zerbait bota ziguteno, zuen laguntza hori ezinbestekoa izango zaigu eta.

*DBH 4. mailako
Maialen Ibargoen, Lierni Etxebeste eta Alaitz Aguilar*



Gora INAUTERIAK !

“Inauteri, Inauteri mozorro bat bi aurpegi”

Urtero bezala, aurten ere iritsi dira Inauteriak Haurtzarora. Musikak, dantzek, mozorroek, txantxek... begietan distira berezia sorrazten digute. Ikusgarria hainbeste ikasle, irakasle eta gurasok beren lan eta imajinazio bidez eskaintzen digutena.

Aurtengoan berrikuntzak ere izan ditugu: Intxixu eta sorginak bertaratu zaizkigu Herriko Ihote festa iragarritz. Musika, mozorroak, ilusioa, beldurra, kanta eta dantzak: denetik izan da gure patioan.

Baina, nola bizitzen da hau guztia adin desberdinetan? Nola-koa da azken ikuskizunean ikusi eta bizitzen duguna lortzeko prozesua? Oraindik memorian bizi-bizirik ditugun momentu horietara iritsi ahal izateko ikasle, irakasle eta gurasoen ilusioa dago atzean. Ilusioa eta lana. Ikus dezagun bada!

HAUR ESKOLA-PARTZUERGOA



Inauteriak iristear daudenean haur eskolako gelak eta pasiloak apaintzen ditugu, eta mozorrotzen hasten gara eguna iritsi aurretik girotzen joateko.

Sehaska eta ertainen geletan, haurrak nahi duten bezala mozorrotuta etortzen dira etxetik, eta festa giroa izaten da haur eskolan; hori bai txikiak direnez eta beste behar batzuk dituztenez, festa denbora laburragoa izaten da.

2 urteko haurrek ikastolako arratsaldeko jaialdian ere parte hartzen dute. Normalki goizez beste mozorro batekin etortzen dira eta desfilea ikustera ateratzen dira. Eguerdian, egun horretan siesta motzagoa egin beharra dute, arratsaldeko emanaldirako prestatu behar dutelako, eta batzuk ezin esnatuz ibiltzen gara. Gurasoen laguntza izaten dugu, haurrak mozorrotu eta jaialdira abiatzeko. Guraso batzuek ere emanaldian parte hartzen dute.

Aukeratutako dantza edo emanaldiaren entseguen egun batzuk lehenagotik hasten gara. Jantziak normalki irakasleok egiten ditugu, baina gurasoek ere parte hartzen dute beharren arabera.

Haurrak harrituta, urduri eta pozik bizitzen dute jaia, baina badira hain gustura egoten ez direnak ere, beldurtzen direlako edo mozorrotu nahi ez dutelako... Beren borondatea errespetatzen dugu.



HAUR HEZKUNTZA intxixu eta sorginak



Aiako Harritik heldu dira berriz ere intxixuak eta sorginak. A zer nolako emozioa!

Haur Hezkuntzako haurrek intentsitate handiz bizitzen dute hauen etorrera, eta beren artean, poza, beldurra, urduritasuna eta emozioa sumatzen da egun hauetan.

Haur Hezkuntzako irakasleok, aste honetan, ikasleak girotzen ditugu intxixu eta sorginez hitz eginez, irudiak margotuz eta erakutsiz, pasiloak apainduz, ipuinak entzunez eta ikusiz, ihoteen abestia kantatuz, musika entzunez, zakuaren mozorroa erakutsiz...

Aurten ikasle baten aitzak berak egindako intxixu buru bat ekarri digu ikastolara eta gurekin egon da aste osoan haurrek ikus eta uki dezaten.

Ostiralean, otsailaren 25ean, haur eta irakasle guztiak bildu gara herriko ihoteen festari hasiera emateko. Intxixu eta sorginen irudiak erakutsi dizkigute Pirritx eta Porrotxen abestiak entzuten genituen bitartean. Haurrak oso gustura egon dira txaloka, kantari...; beren aurpegieta irribarrea islatzen zen. Ikastolako guraso bat, Kattalin, bere ahuntzarekin bertaratu da eta intxixu eta sorginen ipuin polit bat kontatu digu.

Jarraian, pregoian parte hartu dugu ikastolako beste ikasle guztiekin batera. Gure zikloko lau ikasleek Iturriotz auzoa ordezkatzu bantardina lotu dute. Ihoteen abestia kantatu dugu eta jarraian, dantzari ekin diogu. Primeran pasatu dugu aste honetan eta dagoeneko prest gaude plazara joateko intxixu eta sorginen festara.



IKASTOLAKO EMANALDIA

Honekin ez dira bukatu gure inauteri ospakizunak. Oraindik ere ikastolan antolatzen dugun emanaldia falta da, jaialdi erraldoia bezain polita. Eguna iritsi baino hilabete bat lehenago lanean hasten gara ikasle, irakasle eta gurasoak.

Hasteko, zikloko irakasle guztiak elkartu eta proposamenak egin ditugu. Eztabaidatu ondoren, hauetako bat aukeratzen dugu eta ahal den azkarren lanari ekiten diogu. Proiektua gauzatu ahal izateko hainbat gauza kontuan hartu behar ditugu:

- Pertsonaiak
- Mozorroak
- Musikaren muntaia
- Denborak
- Koreografia
- Haurren adina eta motibazioa

Ez da ez lan makala, eta hau guztia ziklo osoaren artean koordinatu behar izaten dugu.

Aurtengo proiektua Edurnezuriren ipuina antzetztea da. Berehaxe hasi gara haurrak girotzen ipuina kontatuz, irudiak ikusiz, pertsonaiak zeintzuk diren aurkeztuz... Jarraian pertsonaiak aukeratzeari ekin diogu.

Ondoren, irakasleok guraso baten laguntzaz musika muntaia egin dugu. Jarraian koreografia landu dugu eta saioekin hasi gara, batzuetan mailaka, gelaka edota ziklo osoa elkarrekin, proiektua ziklo osoarena dela ahaztu gabe. Txiki hauekin saio dezente egin behar izaten ditugu espazioan koka daitezen, dantza edota antzerkia ikasteko...

Gu honetan murgilduta gauden bitartean gurasoek ere beren lana egiten dute. Geletara etortzen dira eta haurren moztorroak prestatzen laguntzen dute, jaialdirako prest egon daitezen. Ikasleak ere moztorroa osatzeko eskulanen bat egitera bultzatzen ditugu.

Ostegun gizen egunean, ohitura zaharrei jarraituz, etxetik ekarritako torradekin hamaiketako bikaina egiten dugu.

Eguna iristen denean, haurrek primeran erantzuten dute, ilusioz parte hartuz bai goizeko desfilean, baita arratsaldeko emanaldian ere. Kontuan hartu behar dugu Haur Hezkuntzan 220 ikasle inguru direla eta egiten duten ahalegina eta parte hartzea ez dela nolanahikoa. Berriz ere, urtero bezala, erakusten digute zer nolako gaitasuna duten beren jarrera baikorra erakutsiz.

LH 1. zikloa

Gabonen ondoren hasten da gurean inauteria ate-joka. Aurtengoan tarte gehixeago izan dugu, martxoan egokitu baitira, baina betiko moduan arrastaka ibili gara.

Gurean irakasleon esku geratzen da gai aukeraketa, beti ere ikasleen desioak kontuan hartuta. Aurtengoan "Irrien laguna" kantuak piztu zuen ideien sua. Kantu honek haurrengan sortzen zuen emozioak ideia zurrunbiloa martxan jartzea bideratu zuen. Irria, lagunak, poza, argitasuna, kolorea!, irakasleak honekin bueltaka, eta bestetik musikako irakaslea, bera ere zikloidea, margoen ideiarekin erabat motibatua, telepatiaz elkartuta... gure aurtengo proiektua martxan jartzea ahalbideratu du.

Manley margoak ditugu moztorro. Moztorro koloretsua, hori, gorri, urdin kolore nagusiak zikloko nagusien esku, LH2 mailako neska-mutilak. Hauen nahasketa, laranja, berde, more ziklora etorri berrientzat, LH1 mailako ikasleak.

Aurten lehen aldiz moztorroa beren esku utzi dugu, ikasleak ardura-tuko dira moztorroa egiteaz, horrek dakarren ardura eta parte hartzearekin, aurrera!

Eta irakasleak? Margoak jaso eta biltzeko Manley kaxa bihurtuko gara.

Musika aukeratzea musikako irakaslearen esku geratu da noski, Pirritx eta Porrotxen "Irrien laguna" sarrerarako, "Carmen" Bizeten kantu ezaguna eta bukatzeko Betizu taldearen "7005 kolore" kantu aproposa gure dantza emanaldirako.

Dantzari dagokionez, beti bezala ikasleek duten gaitasuna eta jarra-eraxalogarria aipatu behar. Denboraz justu eta, hala ere, ikasleen inplikazioa eta gogoak txundituta eta aho zabal uzten gaitu. Giroan erabat murgilduta sumatzen ditugu eta horrek ere guri indarra ematen digu.



LH 2. zikloa



Inauteriak inguratzen ari zirenez eta moztortzeko gaia aukeratu behar genuenez, LH2. zikloan lantzen denari begira jarri eta naturarekin erlazioa duten gaiak baditugula ikusi genuen. Beraz, Skalariak-en abestiak ongi dioen bezala naturarekin bat egin, eta urtaro ezberdinak eta beren zikloa oinarritzat hartzea pentsatu genuen.

Behin hau erabakita, koreografia pentsatzeari ekin genion, eta zer hobeto ziklo hori bera behin eta berriz irudikatzea baino? Gelaka, mailaka eta zikloan osatutako forma ezberdinak antolatu genituen, beti ere, borobilari lehentasuna emanez.

Hau ere prest izanik, moztorroaren nondik norakoak erabakitzea falta zitzaigun. Erabakitako gaia gogoan izanez eta naturarekin bat eginez, plastikoaren erabilpena gutxitzea erabaki genuen. Beraz, etxeko jantzi arruntak (bakeroak, koloredun kamisetak...) oinarritzat hartuz, eta gainean ikastolan egindako marrazkiak (loreak, hostoak, elur malutak eta eguzkiak) josiz osatu genituen moztorroak.

Otsailaren hasieran zikloan bildu eta ikasleei honen guztiaren aurkezpena egin genien. Eta pixkanaka, plastika eta gorputz heziketako saioretan moztorroak eta dantzako mugimendu ezberdinak prestatzen hasi ginen. Inauteri eguna baino hamabost egun lehenago, zikloko entseguetara ekin genien, guztion arteko koordinazioa lantzeko.

Ekitaldi honetarako astebete falta zela, herriko inauteriak bizitzeko aukera izan genuen, ostiral goizean intxixu eta sorginak inguratu baitzitzaizkigun ikastolara. Auzoetako banderak igotzeko eta aurretik ikasitako "lhote baltsa" eta beste dantzak elkarrekin dantzatzeko aukera izan genuen.

Ostegun gizenean, ohitura legez, torrada ezberdinak dastatu genituen geletan eta konturatzerako iritsi zitzaigun ostirala.

Goizean, hamarrak bitartean, aurpegi eta buruak apaindu genituen, jarraian herrian barrena egiten den desfilean dotore parte hartzeko. Desfilea bukatu ondoren, berriz ere ikastolan, gazte eta heldu, denok batera gozatu genuen musika eta dantzaren inguruan.

Arratsaldean, berriz, gure dantza besteei eskaintzeko eta besteenaz gozatzeko aukera izan genuen. Ikasleek, aurtengoan ere, irakaspen polita eman digute irakasleoi, zailtasunak zailtasun, urduritasunak urduritasun, emanaldi eder batekin inauteriei bukaera emanez.



LH 3.



Inauteritakoa oso festa seinalatua da gure ikastolan eta baita, nola ez, LH 3. zikloan ere. Baina festa ospatzeko eta bizitzeko, ez dira gutxi aurretik lotu behar diren gauzak eta egin behar diren lanak. "Merezi izan ote du aurtengoak?" izan daiteke urteroko galdera. Ikus dezagun:

Gure Zikloan inauterirako gaia ikasleek aukeratzen dute. Horretarako baldintza argi batzuk ezartzen dira (gaia ez dadila oso ikusia izan, moztortzeko aukerak eskaintzen dituen izan dadila, dibertigarria izan dadila, eta, batez ere, ahalik eta gehien gustukoa izan dadila). Aurrekari horiekin gela bakoitzean ideien proposamenak egiten dira eta bata bestea konbentzitzen saiatzen dira. Gehien botatutako proposamenak mailako bilerara eramaten dira eta bertan defendatu. Botazioaren ondoren, boto gehien jasotzen duten proposamenak zikloko bileran agertu eta defendatzen dira azken botazioetarako.

Aurten oso proposamen originalak egin direla esan beharra dugu eta horietako batzuk ikasleek prestatutako power pointez defendatuak izan dira gainera. Hala ere, dena gutxi izan da: gehien babesa lortu duen proposamenik ez da atera eta denbora dezente joan zaigu gaia aukeratzeko. Etsigarria, baina aberatsa. Azkenean, eta adostasunik ez zegoenez, esku artean genituen proposamenak bertan behera utzi eta berriktik hasi behar izan dugu. Horrela lortu dugu, korrika eta presaka oraingoan, gaia aukeratzea.

Gaia oso sinplea izan da moztorro aldetik (aurreko baldintza batzuk bazterrean utzi behar izan ditugu genuen denbora larritasunagatik). Horrek asko erraztu du bakoitzak bere etxean prestatzea eta, betiko moduan, indar handiagoa jarri dugu gure ikuskizunean.

Behin gaia aukeratuta, irakasle taldea egin beharreko ikuskizunari forma ematen hasi

zikloa

DBH 1-2-3



gara: Zein musika erabili (hemen ere ikasle- en ekarpenak aberatsak izan dira), zein istorio kontatu, nola taldekatu ikasleak, nola egin sartu-irteerak, irakasleonek partai- detza... Denak lotuta egon behar du.

Gela bakoitzetik ordezkari batzuk animatu dira egin beharreko dantza asmatu eta, ondoren, gelakideei erakusteko. Bide batez, 6. mailako ikasleek, bertsolaritza saioan eta Ander Lizarralderen laguntzaz, ikuskizunerako behar genituen bertsoak asmatu dituzte. Baita gainontzeko guztiak ziztu batean ikasi ere!

Bertsoak, dantza, ikuskizunaren hariak... argi eduki ondoren saioei tartea eskaini behar zaie. Gorputz Heziketako bi saio aprobetxatuz, kiroldegira joan gara gure ehundik gorako ikasleekin ikuskizuna saiatzera. Ondoren gauza bera egin dugu ikas- tolan bertan ere. Ikusgarria da, eta urtero gauza bera gertatzen da, espazio zabalak kontrolatu eta talde handian konsignak jaso eta martxan jartzeko gure ikasleek duten abilezia. Ez dira alferrikakoak gerta- tzen aurreko urteetan antolatu eta bizituta- ko inauteriak, alajaina! Batzuetan bestetan baino politagoak, baina beti hezigarriak gertatzen baitira egindako lanak.

Ondorioa, beraz, garbia da: Aurtengoak ere merezi izan du! Gora Inauteriak!



DBHn ohitura denez urte batean euskal inauteria eta hurrengoan "gai libre" egiten dugu. Aurten gai libre zenez, egokia ikusi da DBH 1. 2. eta 3. maila- rako gai orokor edo komun bat aukera- tzea, horrela etapari trinkotasuna ema- teko. Modu horretan, talde handia ikusgarriagoa da eta mailen arteko elkarlana aberatsagoa da. Aurten "gai libre" aukeratzeko prozedura berria jarri dugu abian.

Gai orokorra nola aukeratu da? .

Gela bakoitzean proposamenak eskatu ziren. Hauek idatziak izan behar zuten eta urtarilaren 14rako aurkeztu behar zituz- ten. Ikasleek gogoia eta sormena erakutsi zuten eta ideia jarria izugarria izan zen:

MUSIKA ESTILOAK, BIZITZA MODER- NOA , HAURTZARO JATETXE TXINA- TARRA , GASTRONOMIA, MITOLO- GIA, BASOA, IKASTOLA, MUSIKA, ITSASOA, DONOSTIAKO PORTUA, INTSEKTUAK, ZOOA, HALLOWEEN , PITUFOAK, ESTRALURTARRAK, MUN- DIALA, AFIZIOAK, KIROLAK, MUNDU- KO EZKONTZA EZBERDINAK, MAMMA MÍA, HERRIALDE EZBERDI- NETAKO BIZTANLEAK, TRIBUAK, AURKAKOAK-ANTONIMOAK... Zerren- da amaigabea!

Urtarrilaren 17an proposamen idatzi guz- tiak geletan aurkeztu eta botaketa egin ondoren, gela bakoitzetik 2 aukeratu ziren delegatuen bitartez besteei hela- razteko.

Urtarrilaren 20an gai orokorraren aukera- keta egin zen. Ondoren gela guztietan bildutako proposamenak delegatuen bileran aurkeztu ziren. Eztabaidatu ondo- ren geletan aukeratutako proposamenak bildu zituzten eta guztien nahiak jasotzen zituen gai orokorra izendatu zen delegatu bileran.

Aukeratutako gaia "itsasoa eta portua" izan zen eta maila bakoitzari zegokion azpigaia izendatu zen:

DBH 1: itsasoko kirolak
DBH 2: estropadak
DBH 3: Donostiako portua

Urtarrilaren 24an: proposamen irabazle- ak geletan aurkeztu ziren, eta geletan jorratu dira.

Hau guztia aurrera eramateko hainbat entsegu egin dira taldeka, gelaka, maila- ka ala orokorrak, eta horrela gauzatu da aurtengo inauteri ekitaldia. Oiaztuna iri- tsi den DBHko OLATUA!



DBH4. mailako

inauteri prestaketa eta inauteri eguna

DBH4. mailako ikuskizuna antolatzen aritu garen taldeko bi partaide gara. Makina bat komeria, abentura eta istilu izan ditugu mailakide guztiak "ados" eta dena aurrera eramateko. Hasiera batean, mozarroa zela eta, izugarrizko gorabeherak izan genituen adosteko orduan, izan ere maila erdiak gai libre nahi zuen eta beste erdiak txikitako ipuinetako pertsonaiez mozarrotu nahi genuen.



Bozketaren ondoren, bakoitzak nahi zuen mozarroa janztea atera zen. Jarraian, jolasgarai batean bilera bat egiteko elkartu ginen batzuk eta hor gogoko genituen zenbait mozarro biltzen zituen proposamena sortu genuen. Umeen ametsetan oinarritu genuen ideia, eta bertatik atera genituen azkenean onartutako mozarroak: lo egiten duten umeak, ametsen aurretik kontatzen ditugun ardiak, amets gaiztoetako bakero eta mafiosoak eta umeen ipuinetako protagonistak. Proposamen hau mailakideei aurkeztu genienean agertu ziren lehen iskanbilak gaiarekiko. Antolatzaileok jolasgarairo gelan geratzen ginen dantza eta ikuskizun guztia egiteko. Eta batzuek oso gustukoa ez bazuten ere, Gorputz Hezkuntzako klasetan dantza guztiok ikasi genuen eta martxoaren 4ko ikuskizunean ikusi zenutenez, ikuskizun txukuna atera zitzaigula uste dugu. Guk behintzat, gorabeherak gorabehera, guztiok oso ongi pasatzea lortu genuen.

Hona hemen bukaeran kantatu genuen abestia:

Bakero, pijama, ardiak ta ipuinak...
Guztion partetik mila esker
Jei denak hasi dantzaten!

Mila esker Haurtzaro bihotzetik
aurrera egiten laguntzeagatik
Tristura, pozak, momentu ahaztezinak
Jei denak segi dantzaten!

Gu guztion partetik mila esker,
tutore maisu andereño guztiei,
Haur Hezkuntzan, LHn, DBHn
Jei denak segi dantzaten!

Gu hezi eta hazi izanagatik
dakizkigun gauzak erakusteagatik
maitasunez gu tratatzeagatik
Jei denak segi dantzaten!

13 urte gurekin pasatzeagatik
maisu maistra bikainak izateagatik
besarkada handi bat denon partetik
Zuei guztioi eskerrik asko!

DBH 4Bko

Irati Huitzi eta Uxue Barrenetxea



GURASOEN TALDEA

Badira urte batzuk Haurtzaro Ikastolako inauterietan guraso talde bat ateratzen dela. Taldekide batzuk gaur egun ez dira ikastolako gurasoak, baina oraindik ere taldean jarraitzen dute.

Taldea oso aberatsa da, denetarik baitugu bertan: makillatzaileak, jostuna, eskulanetan abilak direnak, koreografia prestatzen... Lanak elkarren artean banatzen ditugu: merienda, afaria, koreografia, detaile txikiak. Muntaiia polita eta kurioa dugu antolatua. Non-nahi konplizeak ere baditugu; zerrenda luzea osa genezake, eta egun horretako behar ditugunak; musikaren muntaiia, telak, material berezia eta abar luzea guztien laguntzarekin egiten dugu, eta, nola ez, ikastolaren laguntza ere izaten dugu.

- Abenduan elkartzen gara lehen aldiz. Bilera honetan bakoitzak pentsatutakoa edo ikusitakoa proposatzen dugu, eta bertan erabakitzen dugu zein izan daitekeen mozarroa.
- Urtarrilean berriz elkartzen gara, eta erabakita daukagun mozarroarentzat musika eta nolako antolaketa egin genezakeen adosten dugu.
- Hurrengo bilerak mozarroa egiteko, detaileak lotzeko eta entseguak hasteko erabiltzen ditugu.
- Elkartzeko egunak eta ordua partaideen artean erabakitzen ditugu, baina ez gara denak eta beti etortzen, ahal dugunean baizik.

Mozorroaren sekretua mantentzen izaten ditugu komeriak, eta inauteri eguna oso berezia izaten da guretzat. Eguerdian elkartzen gara gela batean, eta han mozarrotu eta margotzen gara. Saioa egin arte ezkutatuta egoten gara.

Saioa amaitu ondoren merienda bat egiten dugu guztiok eta gero plazara!

Leku desberdinetan egiten ditugu arratsaldean zehar gure saiotxoak: plazan, Zaharren egoitzan, Garmendia txokolategian, Las Divinas janari dendan eta azkenik kiroldegira joaten gara, eta bertakoein, besteak beste, salsa ere dantzaten dugu.

Ondoren afaltzera joaten gara eta gero auskalo!!!!

Oso urduri egoten gara egun horretan, baina ongi pasatzen dugu, eta esperientzia polita izaten dela esan behar dugu. Azkenetako urduritasun guztiak ahazten zaizkigu.


Gogoratu inauterietako guraso taldean parte hartu nahi duen guztiarentzat irekia dagoela!!!!



Inauteriat 2011

Partzuergoa

HH





LH1



LH2





LH3



DBH123



DBH4



Teknikariak



Gurasoak



Zuzendaritza



IKASTURTE HONETAKO ESKOLAKO AGENDA 21EN ERRONKA

hamaiketako osasungarriak eta hondakinik gabeak

Eskolako Agenda 21 plangintza aurrera eramaten den zazpigarren ikasturtea da. Ikasturte bakoitzean, ingurumenaren gaineko gai edo arazo bat aukeratzen da, eta horren inguruan lantzen da programa. Gaia aztertu eta ikastolaren eta ikastolako ingurune hurbilenaren egoeraren diagnostikoa egiten da. Azkenik, ikastolak hobetu beharreko ekintzak definitu, eta abian jartzen dira. Era berean, udalari herria hobetzen laguntzeko ekintzak proposatzen zaizkio.



Iazko ikasturtean, ikastolan hondakinen arazoaz ikasleak sentsibilizatzeko eta kontzientizatzeko ekintza ugari bideratu genituen; hala nola erakusketa gidatuak, gelako eta ikastolako hondakinen azterketak, gurasooi zuen ohiturak eta Atez atekoaren inguruko iritzia ezagutzeko galdeketa... Atez ateko bilketa sistemak eragingo zizkigun aldaketak gertutik ezagutu ahal izan genituen. Guztion artean lan ederra burutu genuen.



Aurten ere hondakinen gaia lantzen ari gara. Ea lanari gogoz ekiten diogun eta gure txikienean artean jarrera arduratsua eta kritikoa pizten jarraitzen dugun. Atez atekoaren emaitzak aztertzea, sistema ezarri ondoren herritarren iritzia ezagutzea, bere antolaketaren azterketak...

Gure txikienean artean ingurumenaren gaineko jarrera arduratsua eta kritikoa pizteko lana ez da ikastolako eremura mugatzen; etxetik abiatzen da.

Ikasturte honetan esku artean dugun erronka handienetarikoa da ikasle guztiek hamaiketako osasungarriak eta ahalik eta ingurumenari kalte gutxiena eragingo diotenak ekartzea.

Ikastolaren ondoan dagoen esne-makinaren erabilera bultzatzea ere proposatu digute erronka gisara. Azken batean, hondakinik ez dugu sortuko esne-makinako esnea edanda, ontzi berrerabilgarriak erabiltzen baitira. Garraioan ere ez dugu kutsatzen, Oiertzungo Arane baserriko esnea baita, eta esne osasungarria edateaz gain, bertako baserriarren artean lana sortzea ere positiboa baita.

Ikasturtea hasi denetik dagoeneko hainbat lan burutu ditugu:

Azaroak 1-5: Eskolako Agenda 21 en astea. Zer den gogorarazteko eta hausnartzeko astea. Bestetik, Eskolako Agenda 21 en barruan lanean jardun dugun urte guztietako eskaeren jarraipena egin da, ikasleek haien lanaren lorpenak ikus ditzaten.

Azaroak 3: Udal Batzar Berezia, udalak aurreko ikasturteko eskaerei erantzuna eman zien.

Urtarrilak 24-otsailak 4: Hondakinen inguruko erakusketa Ikastolan. Aurtengo gaiari hasiera emateko, sarrera moduan. Atez atekoa ipini denetik hondakinen datuen aldetik zein aldaketa gertatu diren aztertzea, eta bestetik, hondakinen gaian hausnartzeko eta arazoa konpontzeko irtenbideei buruz hausnartzeko erakusketa ipini genuen. Bi aste hauetan zehar, ikasleek ekartzen duten hamaiketakoari buruzko azterketa egin dute eta horren datuak bilduko dira ikastolan. Datuok diagnostikoa egiteko ere erabiliko dira.

HAU GUZTIA MENDI ENARA TALDEAREN LAGUNTZARI ESKER BIDERATU DUGU, ONEKA ZAPIRAINI, ESKER HAIN ZUZEN ERE.



HAURTZARO IKASTOLAKO DIAGNOSTIKOA

ATEZ ATEKO BILKETAREN INGURUKO IRITZI ETA EMAITZAK

Galdeketa 225 familiari egin zaie.

Galdeketa egindako galdera guztien erantzun guztiak publikatzeak luze joko luke, eta nahi duenak eskuragarri ditu ikastolan.

Hemen, soilik, asebetetze-mailaren emaitza adierazten dizuegu.

“Hilabete batzuk pasa dira Atez ateko bilketa martxan jarri dela, zein da zure asebetetze maila?” galderaren honako erantzunak jaso ditugu, ehunekotan adierazita.

Bestalde, galdeketa iritzi ugari ere jaso dira:

- Neguan ordutegia aurreratu beharko litzatekeela. 18:00ak aldera hasteko proposatzen zuten.
- Plastikozko poltsak erabili beharrean papera eta ontzi arinentzako ontzi berrerabilgarriak ezartzeko eskatzen zuten.

- Kamioiak zarata handia ateratzen duela kexatzen zenik ere bazen.
- Egutegiaren inguruan denetarik eskatu dute, organikoarentzak egun bat gehiago, ontzi arinentzako egun bat gehiago, papera eta kartoiarentzat egun bakarra astean gutxi dela, egun berean bi hondakin mota atera ahal izatea etab.
- Larrialdi-gunearen inguruko kexua: zikin samarra dagoela, urruti samar eta, gainera, kotxez joan behar dela, eta hori ez datorrela bat ingurumena zaintzearekin.
- Beste batek ontzi arinak eta papera eta kartoi edukiontzietan bilduko litzatekeela zioen eta organikoa eta errefusa, aldez, atez ate zintzilikatuta.

Asebetetze-maila



DIAGNOSTIKOAREN ONDORIOAK gure ikastolan



2011ko urtarilaren bukaera aldera Atez ateko bilketaren inguruan etxeetan zuten iritzia jasotzeko eta diagnostikoa osatzeko inkestak banatu genituen. Galdeketak familiak bete dituzue, hain zuzen 225 familiaren erantzunak jaso ditugu, haur hezkuntzatik derrigorrezko bigarren hezkuntza bitarte.

Galdera guztiak eta erantzun guztiak aipatzeak luze joko luke, baina aipagarriena honakoa da, "Hilabete batzuk pasa dira Atez ateko bilketa martxan jarri dela, zein da zure astebetetze-maila" galderaren aurrean, %34k oso gustura dagoela adierazi du, %40k gustura eta %16ak nahikoa.



Bestetik, "Aukeratzetik bazenu zein bilketa sistema ezarriko zenuke?" galderaren aurrean %60k berriro ere Atez ateko bilketa sistema ezarriko lukeela dio, eta %30ek laugarren edukiontzia aldeko hautua egiten du.

Gainontzean ordutegiaren, egutegiaren, larrialdi-gunearen inguruko galderen aurrean nahikoa jarrera positiboa jaso da. Ez dago aipatzekoa den emaitzarik.



HAUR ESKOLA - PARTZUERGOA


Ai gure poltsa beltz eta bakarra!!



Ohituretako izakiak garenez, hasiera batean arreta handia eskatzen zuen haur eskolako zaborra hainbeste ontzi ezberdinetan sailkatu beharrak, baina egunero eginez berriz ere ohitu gara... eta 2 urteko haurrak ere plastikoa eta papera zein ontzitarra bota behar duten galdetzen hasiak dira.

Errefusa da gehien sortzen dugun zaborra, haurren pardelengatik batez ere, baina egunero ateratzen dugu.

Gustura gaude herrian proposatutako atez ateko zabor bilketa sistema honekin!!



Eta zer dio ikastolako

HAUR HEZKUNTZA

Haur Hezkuntzako geletan birziklapenaren ekimena barneratuta dugu bai ikasleak eta irakasleok ere. Haurrak hasieratik saiatu dira gauza bakoitza bere tokian botatzen. Zalantzaren aurrean beti galdetzen dute: "Hau nora?" Ez dute edozein tokitan botatzen. Txikiek honelako ohituretan oso zintzo jokatzeko dute.

Oneka berriz ere gai berarekin etorri zaigu, sentsibilizazio saio bat egitera. Haurrak pozik joan dira. Lehengo urtean Txix zizarea aurkeztu zigun eta ordutik askotan gogoratzen gara beraz, organiko poto marroira janari hondakinen bat botatzen dugunean. Oraingoan Txixen Ameriketako lehengusuak aurkeztu dizkigu, ipuina kontatu digu... eta berriro ere konpostaren inguruan hitz egin dugu. Jolas batzuen bitartez gogorazi digu gauza bakoitza nora bota behar dugun.

Bestalde, gosariak eta paper eta plastiko gutxiago erabiltzearen garrantziaz hitz egin dugu. Azkenaldi honetan haurrek gero eta gehiagotan ekartzen dute beren gosaria "tuper" delakoan.



etapa edo ziklo bakoitzak?

L H 1. ZIKLOA



Agenda 21 proiektuari ere egin diogu zor zaion lekutxo. Agenda 21 proiektuak Ikastolan duen taldean, gutariko ordezkari bat dugu eta bideratzaile lanak egin eta ziklora garraiatzen dira balorazio, proposamen eta abar guztiak.

Lehenik, udalari eskaerak egiten dizkiogu eta segidan, udalaren erantzunarekin batera, motibazio saioetan murgiltzen gara. Ondoren, taldean koordinatutako jarduerak eramaten ditugu aurrera.

Hiruhileko honetan, hamaiketakoak Ikastolan sortzen duen zabor kopuruaz aritu gara eta baita baserriko esnearen abantailez ere. Bi gai hauen harira eta azken helburutzat birziklapena eta zabor murrizketa izanik, zenbait konpromiso, proposamen eta ideia landu ditugu. Hamaiketakoak tuperrean ekartzeak eta albala berrerabiltzeak izan du arrakasta gehien. Honekin batean, hamaiketako osasungarriak duen garrantzia ere azpimarratu nahi izan dugu.

Azken jarduera gisa, jogurtak egitekoak ere bagara, baserriko esneaz eta jogurtak egiteko jogurtontzi berrerabilgarriekin.



LH 2. zikloa



Ingurugiroarekiko errespetua, natura zaintzea, berrerabilpena, birziklapena... gure artean behin eta berriz errepikatzen diren hitzak dira. Txikitatik, etxean nahiz ikastolan, gai hau landu izan dutelako seguruenik, gure zikloko ikasleak gaiarekin oso kontzientziatuta daudela esan daiteke.

Aurtengo ikasturtean ere, gai honek izan du bere lekua. Eguneroko aipamenaz, lanketaz aparte, bi izan dira Eskola Agenda 21etik proposatu zaizkigun ekintzak.

Alde batetik, zaborren inguruko erakusketara joateko aukera izan genuen. Oneka Zapiarainek aurkeztuta, herrian sortzen ditugun hondakinen inguruan, atez atekoak ekarri duen aldaketaren inguruan, aurrera begira norberak egin dezakeenaren inguruan... hausnartu ahal izan genuen, beste behin ere. Ikasleek oso gustura ikusi eta entzun zituzten bertako datu, ondorio eta gomendioak, eta kontsumoa, berrerabilpena, birziklapena... zein garrantzitsuak diren argiago gelditu zitzaizkien.



Bestalde, hamaiketakoaren inguruan hausnartzea ere eskatu genien ikasleei. Zein hamaiketako mota ekartzen dituzten gelara, nork erabakitzen duen, hamaiketako osasungarriak diren ala ez, zerekin bilduak ekartzen dituzten... Bakoitzak bere galdetegia bete ondoren, gaiaren inguruan hitz egin genuen denon artean. Hamaiketakoak egokiak ziren ala ez eztabaidatzeko garaian, osasun aldetik eta kutsadura aldetik dituzten ondorioak izan genituen kontuan. Egia da gelan gaia atera aurretik ere ikasle askok hamaiketako osasungarriak ekartzen zituztela, eta horietako askok "taperretan", baina hausnarketa egin genuenetik aldaketa bat eman dela esan behar dugu. "Albal" gutxiago, "taper" gehiago eta hamaiketako osasungarriagoak ikusi daitezke gela-tako saskietan.

Bukatzeko, eta familiek etxean betetako inkestaren emaitzak aitzakiatzat hartuta, herrian martxan jarritako ATEZ ATEkoaren inguruan ere hitz egin dugu azken egun hauetan. Aldeko eta kontrako iritzia entzun, errespetatu eta horien inguruan hitz eginez, bakoitzak bere esku dagoena egitea zein garrantzitsua den ondorioztatu dugu, benetan natura maitatu eta zaindako badugu behintzat.



LH 3. ZIKLOA

Bosgarren eta seigarren mailakoek gure hamaiketako osasungarria den aztertu dugu alde batetik eta zein bilgarri erabiltzen dugun eta birziklatu daitekeen ala ez, bestetik.



Zera ondorioztatu dugu:

1. Gehienok hamaiketako egiteko zerealak, fruituak edota esnekiak ekarri ohi ditugula, besteak beste.
 2. Gure hamaiketakoak biltzeko darabiltzagunak direla eta, berriz, erreparatu gara gehienetan zilar papera, erositako hamaiketakoak dakarren plastikoa, edota behin erabili ondoren bilgarria zaborra bihurtzen dugula. Hau dela eta, zaborra murrizteko hainbat proposamen eta konpromiso hartu ditugu:
- Gure hamaiketakoak biltzeko edota eramateko, berrerabilgarriak diren ontziak erabiltzea. Adibidez: oihalezko poltsak, plastikozko ontziak (tuperwareak), edo behin eta berriro erabil daitezkeen plastikozko poltsak.



DBH

hamaiketako ikastolan

2010-2011 ikasturte honetan ere, iazko ikasturteari jarraiki, hondakinen gaia landu dugu. Hau horrela izanik, beste etapetan bezalaxe, aurtengo honetan DBHn hamaiketakoaren gaia aztertu dugu. Proiektu honek fase batzuk ditu eta gu gaiarekin sentsibilizatzea helburu duen lehen fasean gaude. Fase honetan hamaiketakoaren gaia bi ikuspegitatik jorratu nahi izan dugu.



Alde batetik, norberak ekarritako hamaiketakoarekin zer nolako hondakina sortzen duen aztertu, eta bestetik, jaten duguna osasuntsua ote den hausnartu dugu.

Hondakinei dagokienez, murrizteko hainbat modu egon daitezkeela hausnartu dugu. Adibidez, aipatu da aukeretako batzuk izan daitezkeela bilgarririk gabeko hamaiketakoak ekartzea edota behin eta berriz erabil daitezkeen bilgarriak erabiltzea. Izan ere, hondakinak birziklatuz soilik ez dugu arazoa konponduko, berrerabiliz eta ahalik eta zabor gutxien sortuz lortuko dugu arazoari konponbide osoa ematea.



Bestalde, elikadura osasuntsuari dagokionez, aipatu beharra dago azken hamarkadetan gizarte eta lan arloan hainbat aldaketa izan direla. Honek guztiak gure bizimodua aldarazi du eta horrek gure elikadura ohiturak aldatu ditu. Hori dela eta, garrantzitsua da gazteak elikadura egokia izateaz jabetzea, bizi-estilo osasungarriagoa izan dezaten.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi ikastolan erakusketa gidatuak izan ditugula Oneka Zapiainen eskutik. Gaur egungo kontsumo ohiturek hondakin asko sortzera bultzatzen gaituztela ikusi dugu eta ingurumen arazo larriak sortzen dituztela. Gainera, atez atekoa jarri aurretik sailkatzen genuenaren eta orain sailkatzen dugunaren arteko diferentziaz jabetzeko aukera paregabea izan dugu, aldaketa hau ikusarazten duten hainbat maketa ikusiaz.

Konfiantzan, IKASTOLA

“Konfiantzan, ikastola” maiz entzun dugu urtaril bukaeran eta otsaileko lehen hamabostaldian, izan ere “Konfiantzan, ikastola” izan baita Euskal Herriko ikastolen familiok aukeratu dugun leloa datorren 2011-12 ikasturterako matrikula kanpaina egiteko.

Konfiantza zergatik? Bada, ikastolak hezkuntza eremuan egonkortasuna eskaintzen dugun eredu bat garelako; egonkortasuna aitzindaritzan, kalitatean, Euskal Herriaren ikuspegian, euskal gizartearekiko konpromisoan.

Hautzaro Ikastolan, Ikastolen Elkartaren taldeko ikastola bat izanik, gure egin dugu lelo hau: KONFIANTZAN, IKASTOLA bai, eta, horrez gain, DENON ESKURA.



Ikasturte bakoitzean herritarrei gure ezagueren berri ematen diegu eguneroko lanaren bidez, eta matrikulazio garaian ere horretan saiatzen gara, bereziki horretarako egiten dugun bilera orokorrean. Bilera horretan partzuergoan ditugun 2 urteko gelen berri ere ematen dugu.

Ikasturte honetan bilerara 2009an jaiotako haurren gurasoak gonbidatu genituen; bilerara otsailaren 3an egin genuen eta jende asko etorri zen.



Guraso berrientzat prestatutako bileran ikastolaren aurkezpen orokorra egin ohi dugu. Halere, buruan bueltaka bagenuen beste ideia bat: ikastola barrutik hobeto ezagutzeko, gurasoek ikastola bertatik ikusi edo bizi behar zutela. Baina nola egin hori guztia ohiko bilera gehiegi luzatu gabe, eta aurkeztu beharreko guztia azalduz? Ba, helburu horiek buruan aurtzen...

IKASTOLAKO ATEAK ZABALDU DITUGU!

Lehen aldiz matrikulazio bileren jarraian ikastolan ATE IREKIEN EGUNA antolatu dugu.

Bertan izandako Mari Jose Arotzenak, Partzuergoko zuzendariak, horrela kontatu du egun horretakoa:

Partzuergoko irakasleak hor izan ginen, ikastolako ate irekien egunean.

Gurasoek 2 urteko gelak matrikulazio bileraren ondoren ikusita zituztenez, ATE IREKIEN egunean euren haurrekin batera psikomotrizitate gelan izan ginen.

Haurrak gustura ibili ziren modulu tartean, saltoka eta txiri-bueltaka; ipuin kontaketa saioa ere izan genuen Lur Kortaren eskutik. Adi-adi egon ginen denok. Eta haurren laguntza ere izan zuen Lurrek ipuinak kontatzerakoan.

Ondoren, kontalariak ekarritako maleta erakargarria haurren esku gelditu zen... Ilusioa begietan, haurrek bertako altxor guztiak atera eta bereganatu zituzten.



Ikastolako irakasleak lagun, gelaz gela ibili ziren gurasoak, taldeka. Ikastolako gelak eta instalazioak ikusi zituzten; ikastolaren proiektua gertutik ezagutzeko aukera izan zuten.

Haur Hezkuntza eta Urtxintxa proiektua aurkeztu zituen Itziar Lekuonak, HH 1eko irakasleak.



Jarraian, Eleanitz proiektua aurkeztu zuten ikastolako hizkuntzetako irakasleek: nola hasten diren ikasleak ingelesa lantzen, eta zein ingeles mailarekin bukatzen duten 16 urterekin. Aurkezpena egin ondoren, bideoen bidez ikusi ahal izan genuen ikasleen hizkuntzetarako gaitasuna. Olatz Lekuona eta Argiñe Oiarbide irakasleak aritu ziren aurkezpen lanetan.



Ibilbidea jarraituz, taldea osatzen genuenak laborategian izan ginen segidan: laborategia ikusteaz gain, saio berezi batekin topo egin genuen bertan: Josu Arotzena eta loritz Aizpuru irakasleek egin zuten sarrera. Baina saioaren momentu interesgarriena izan zen egun horretan euren lankidetzak eskaini ondoren 5 ikasleak azalduz: 4 esperientzia praktikoa eta bakoitzari zegozkion argibideak jaso genituen. Andrea Ozcoidi, Maider Olaizola, Julen Asteasuin-zarra, Fatuma Isasa eta Irati Oiartzun: Mila esker zuen lanarengatik.



Aritz Gonzalez irakasleak informatika gela eta ikastolako IKT egitasmoa aurkeztu zizkigun.



Lehen Hezkuntza TXANELA proiektuarekin nola lan egiten den aurkeztu ziguten Izko Lekuona eta Amaia Gelbentzuk. Bi irakasle horiekin batera beste irakasle talde bat ere hantxe zegoen gurasoen galderak erantzuteko eta informazioa osatzen laguntzeko.



Lehen hezkuntza nondik nora doan ikusi ondoren DBH etapan murgildu ginen, eta etapa horren berri Josune Saizarrek eman zigun, DBHko ikasketa buruak. Garbi ikusi zen DBH eta LH erabat uztartuak daudela Haurtzaro Ikastolan.



Ikastolan zehar egindako gure bidaia jantokian bukatu genuen. Aurrekoetan bezala, jantokiko bi arduradunen eskutik funtzionamenduaren berri jaso zuten gurasoek: Maritxu Loperena, Lurdes Lopez eta Izar Lekuona izan ziren gurekin.



Bagenituen beste bi proiektu gurasoei aurkezteko prestatuak, baina eguna gehiago ez luzatzearren, beste batean aurkezteko utzi genituen. Eta Txinparteko leiho honetatik egiteari apropos deritzogu. Hor dituzue:

1.- Musika Haurtzaro Ikastolan. Arlo horren lanketaz aritzeko Amaia Cardona musika irakaslea prest zegoen argazkian agertzen den musika gelan.



2.- Bigarren proiektua Teknologiarena izan zen. Madalen Usabiaga irakasleak guztia prest zuen horretarako.



Goian aipatu bezala, haurrak psikomotritate gelan egon ziren partzuergoko irakasleekin, eta ibilbidearen amaiera ere han egin genuen. Hantxe topatu genituen haurrak jolasean.

Familiak, ikastolako eta partzuergoko langileak eta egun horretan gurekin izan ziren Kontseilu Errektoreko guraso ordezkariak otamen txiki batekin eman genion amaiera ATE IREKIEN EGUNARI. Ikastolako sukaldaria den Joxe Fernandezek prestatu zigun. Eguerdia parte izanik, oso gustura hartu genuen, eta mokadu goxoak dastatzen genituen bitartean, gurasoek eta irakasleek elkarrekin iritziak trukatzeko momentu lasaia ere izan genuen.

Esperientzia oso ona izan da guztiontzat, parte hartu genuen langile guztiontzat eta baita etorri ziren familientzat ere. Gure aldeetik errepikatzeko asmoa badugunez, datoren ikasturterako gonbidatuak zaudete!

SORKUNDE LEKUONA
Haurtzaro ikastolako zuzendaria

IKASLEAK orientatzen

Batzuk hasi eta besteek bukatu. Horixe da Ikastolako DBH 4. mailako ikasleek egingo dutena: beren ikastolako ibilbideari agur esan. Horretarako, ikasle berrien gurasoekin Ate Irekien Eguna ospatu dugun bezala, badoazen ikasle hauei orientazio egokia eskaintzen zaie.

Bigarren eta hirugarren hiru hilekoak garrantzitsuak dira DBH 4. mailako ikasleentzat. Ikasketetan zein bidetatik jarraitu erabaki beharko dute, eta erabakiak hartzeak hautatzea esan nahi du. Orientazio programaren helburua da etorkizunerako baliagarriak izango zaizkion erabaki arduratsuak eta koherenteak hartzen laguntzea.

Hori dela eta, ikastolako DBH 4. mailako ikasleak urtarrietik ari dira erabaki egokia hartzen lagundu dien unitate didaktikoa lantzen asteroko tutoretza saioetan.

Horrez gain, otsailaren 9an ikastolan eza-guna dugun Jesus Cabrero irakasle eta orientatzailearen hitzaldia izan zuten bertan bildutako ikasleek, gurasoek eta hezitzaileek. Orientatzaileak erabakiak hartzeko argibide ugari eskaini zizkien ikasleei.

Martxoaren 11n Amaia Laka, Oiertzoko irakaslea eta orientatzailea, Haurtzaron izan zen ikasleen zalantzak eta kezak argitzen saiatzeko.

Eta orientazioaren lana amaitzeko, martxoaren 23an, Oiertzoko aukera azaldu zitzaizen ikasle eta gurasoei. Gure ikastolaren proiektuak, Oiertzo ikastolak, dituen Batxilergo ikasketen aukerak xehetasunez aurkeztu ziren.

Ondoren, banakako guraso bilerak egingo dira, erabakia hartzean ikasleek gurasoen laguntza eta aholkua ere kontuan har ditzaten.

Horrela, haur zirenean gurasoek hartutako erabakiari esker ikastolan hezi diren ikasleak orain erabakiaren protagonista nagusiak izango dira. Eta ikastolako profesionalak bide-lagun izango dituzte.

Aukera ona egin dezatela!



Jesus Cabrero irakaslearen hitzaldia ikastolan

ikasle ohiei elkarrizketa

Esan bezala, DBH 4ko ikasleentzat urte garrantzitsua da hau, erabakia hartzeko garaia baitute. Horregatik prozesu honetan lagungarri gertatuko zaizkien lagun batzuk gonbidatu ditugu Txinpartera: Haurtzaro ikastolako ikasle ohiak. Euren esperientzia kontatzeko eskatu diegu eta erabakia hartzea zertan gelditu den kontatzeko baita ere. Eskerrik asko bide honetan zuen laguntza eskaini diguzuelako!

IKER URANGA



1. Urte dezente igaro dira Haurtzaro ikastolan bukatu zenuela. Nola gogoratzen duzu azken urte hura? (DBH ondorengo ikasketen aukeraketa, esperientzia...)

Nire kasuan, ez nuen zailtasun handirik aurkitu aukeratzeko. Nik txikitatik biologoa izan nahi nuen eta horregatik garbi neukan zientziako batxilergoa egin behar nuela. Hasieran, egia esan, batxilergoa nahiko gogorra egin zitzaidan, alde handia nabaritu nuen DBHrekiko exigentzi maila altuagoa delako.

2. Hartutako bidearekin pozik sentitzen al zara?

Bai, oso pozik. Nik, esan bezala, oso garbi neukan zein bide hartu nahi nuen txikitatik biologoa izan nahi bainuen. Niretzako oso garrantzitsua izan da gustukoa nuen ikasketak egitea, motibazio horrek asko lagundu izan nau egindako bidea burutzeko.

3. Zertan zabilta gaur egun?

Biologia ikasketak bukatu ondoren eta 2 urtez Donostiako laborategi batean ibili ondoren, Bruselaren nabil "In Vitro" Fekundazio laborategi batean. Urte bat daramat jada Bruselan eta oso gustura nago, jende berri asko ezagutu dut eta hizkuntza berri bat ere ikasi behar izan dut baina esperientzia bezala oso positiboa izaten ari da niretzat.

4. Zein aholku emango zenioke gaur egun DBH 4. mailan dagoenari?

Nire ustez, oso garrantzitsua da norberari gustatzen zaizkion ikasketak egitea. Nire kasuan, esan bezala, motibazio handia izan zen, nahiz eta bidea gogorra izan pixka bat leuntzen baitu motibazio honek.

LOREA MUGETA



1. Urte dezente igaro dira Haurtzaro Ikastolan bukatu zenuela. Nola gogoratzen duzu azken urte hura? (DBH ondorengo ikasketen aukeraketa, esperientzia...)

Ba, egia esan, oso oroitzapen onak ditut, DBH 4an helzen ari zarela sentitzen duzu eta ohartzen zara nola zure erabakiek etorkizuna zehaztu dezaketen. DBH bukatu ondoren batxilergoa egingo nuela argi nuen, zailena gus-tuko nituen arloak ondo hautatzea izan zen.

2. Hartutako bidearekin pozik sentitzen al zara?

Pozik nago, baina zaila egin zitzaidan bertara iristea. Hasieran Dietetika zikloa egitea erabaki nuen, baina konturatu nintzen ez zela etorkizunerako nik nahi nuen lana. Dietetika zikloko hoberena praktikak laborategi batean egitea izan zen eta han konturatu nintzen nik benetan egin nahi nuena hau zela.

3. Zertan zabilta gaur egun?

Laborategi zikloa egin ondoren, praktikak "Quiron" ospitalean egin nituen eta bertan lan egiteko aukera eman zidaten. Jadani 2 urte daramatzat laborategian eta oso gustura nabil.

4. Zein aholku emango zenioke gaur egun DBH 4. mailan dagoenari?

Aholku garrantzitsua aukeraketa lasaitasunarekin hartzea da, ikasten zoazen heinean konturatzen joango zara zer den egokiena zure etorkizunerako. Nire kasuan, adibidez, hasieran hautatu nuen bideak, nahiz eta azkenean ez gustuko izan, bultzatu ninduen laborategiko mundura.

OIHANA MORENO

1. Urte dezente igaro dira Haurtzaro Ikastolan bukatu zenuela. Nola gogoratzen duzu azken urte hura? (DBH ondorengo ikasketen aukeraketa, esperientzia...)

Oroitzen dut urduri xamar ibili nintzela erabakia hartzeko garaian... Batxilergoarekin jarraitzea zen nire asmoa, baina hobby ezberdinak nituen eta aukera bat baino gehiago nerabilen esku artean. Azkenean, Zientzietako Batxilergoaren aukera egin nuen.

2. Hartutako bidearekin pozik sentitzen al zara?

Bai noski! Hautua egiterakoan bide baten hasiera aukeratzeko da. Gero, asko dira jarraitu daitezkeen ibilbideak eta beti dago norberari gehien egokitzen zaiona; nik ere aurkitu nuen nirea.

3. Zertan zabilta gaur egun?

Batxilergoa bukatu eta Ingeniaritza Industrialak egin nuen. Unibertsitate ikasketak bukatu aurretik hasi nintzen ondorengo jardunaren inguruan pentsatzen eta irrika sortu zidan gai batekin egin nuen topo. Horrela, Ingeniaritza Biomedikoan Masterra egin eta Ehunen Ingeniaritzan doktoretza tesia burutzeari ekin nion.

Egun, horretan murgilduta nabil: zelulek eragile mekanikoen aurrean duten erantzuna ikertzea da gure lana. Lortutako ondorioekin, norberaren zelulak eta biomaterialak erabiliz, organo gaixoak sendatu edo birsortzea da helburua. Modu honetan, medikuntzan gaixoak artatzeko modu eraginkorrako eta berritzaileagoak aurkitzea ahalbidetzen dugu.

4. Zein aholku emango zenioke gaur egun DBH 4. mailan dagoenari?

Erabakia hartzeko garairako, bilaketa bat egitea aholkatuko nieke: norberaren zaletasunak eta trebeziak antzean, beste pertsonen bizipenak ezagutu eta inguruko aholkuak entzun. Behin informazioa bildutakoan, aukera bakoitzak izan dezakeen bilakaerarekin amestu eta norbera gehien erakartzen duenak izaten du erantzuna.

Edonola ere, erabakia beti da ona. Izan ere, lehen esan bezala, aukera orok dakar berarekin imajinatzen ere ez ditugun hainbat ibilbide eta beti dago modua bakoitzari hoberen egokitzen zaiona jorratuz norberaren txokoa topatzeko.

JOSU ARZALLUS

1. Urte dezente igaro dira Haurtzaro Ikastolan bukatu



zenuela. Nola gogoratzen duzu azken urte hura? (DBH ondorengo ikasketen aukeraketa, esperientzia...)

DBH 4. mailan oso ondo pasa nuen. Oroitzapen onak ditut urte hartaz, nahiz eta pena dexente ematen zidan ikastolaren zikloa bukatzeaz zegoela ohartzeak. Gelako jende asko Oiartzora joan zen eta nik ere hala erabaki nuen, ohitura baitzen Oiartzo ikastolara joatekoa, Haurtzaro ikastolarekin lotuta baitago. Han Gizarte zientziak egin nituen eta unibertsitatera joateko oso ondo prestatu gintuzten.

Oiartzo ikastolan bukatu eta gero oraindik banituen dudak, zer ikasi... Euskal Filologia eta Magisteritzaren artean nituen dudak, baina azkenean Magisteritza ikastea erabaki nuen, alde batetik 3 urteko karrera zen, nahiko motza eta, bestalde, beti eduki izan dut gogoak haurrekin eta lan egiteko. Batez ere haur txikiarekin, horregatik hartu nuen Magisteritza haur hezkuntza ikasteko erabakia.

2. Hartutako bidearekin pozik sentitzen al zara?

Bai, oso pozik. Karrera egin eta nahiko azkar hasi nintzen jada lanean eta orain egoera nola dagoen ikusita, nahiko suertea eduki nuen zentzu horretan. Orain, gainera, jende asko dago Magisteritza ikasten. Etorkizuna hor badagoela seinale.

3. Zertan zabilta gaur egun?

Gaur egun Aiako haur-eskolan nabil lanean. 0-1 urteko haurrak dauzkat gelan, eta beste hezitzaile batekin banatzen ditut. 8 haur dauzkagu bien artean. Esan beharra daukat geroz eta mutil gehiagok egiten dutela haur hezkuntza Magisteritza. Orain arte, 0-6 urteko haurren irakasleak emakumeak izaten ziren, baina pixkanaka-pixkanaka, mutilak ere ari dira mundu honetan sartzen.

4. Zein aholku emango zenioke gaur egun DBH 4. mailan dagoenari?

Ondo pentsatzeko hartuko duten erabakia gomendatuko nieke. Hau da, argi edukitzea zer ikasi nahi duten eta zein perspektiba dauden karrera horretatik, lanbide heziketatik laneko mundura joateko. Zein ate irekitzen diren. Eta berek ikasten duten karrerak edo lanbide heziketak ate asko irekitzen badizkie, hobeto baino hobeto.

Karrera bat ez egiteak ez du esan nahi lan okerragoak edo gutxiago baloratutako lanak egin behar dituzunik. Hortaz, bata ala bestea ongi daudela esango nieke.

UDANE LOIDI



1. Urte dezente igaro dira Haurtzaro Ikastolan bukatu zenuela. Nola gogoratzen duzu azken urte hura? (DBH ondorengo ikasketen aukeraketa, esperientzia...)

Egia esan, nahiko urduri pasa nuen urtea, batez ere azken denboraldia; izan ere, banekien ikasketen inguruan hartu beharreko erabakiak eragin handia izango zuela nire etorkizunean, eta horrek larritu egiten ninduen. Hala ere, tutoretza orduetan eskaini ziguten orientazioak zein zentro ezberdinetara egindako bisitek asko lagundu zidaten erabakia hartzen.

2. Hartutako bidearekin pozik sentitzen al zara?

Bai, unibertsitate-ikasketetara salto handi samarra nabaritu arren, gustura nabil. Gainera, noiz edo noiz Gasteizko ostegun famatu horietan ibiltzeko aukera ere badut eta horrek ere laguntzen du ikasle bizitza arintzen.

3. Zertan zabilta gaur egun?

Esan bezala, aurren Gasteizko unibertsitatean hasi naiz Ingeles Filologia egiten hain zuzen ere.

4. Zein aholku emango zenioke gaur egun DBH 4. mailan dagoenari?

Ez nioke aholku berezirik emango, gauzak lasai har ditzatela eta hartu beharreko erabakia ongi pentsa dezatela, besterik ez. Gero horrek bere etorkizuna baldintza baitezake. Dena den, oraindik berez etorkizunean zer egin nahi duten erabaki ez duten horiei esango nieke beti ahalik eta gehien saiatzeko, horrela ate guztiak zabalik edukiko baitituzte.

Bukatzeko, ikastolako azken urtea aprobetxatzeko gomendatuko nieke, batez ere ikaskideekin dituzten harremanei dagokionez, gero bakoitzak bere bidea hartuko baitu.

UDANE PEREZ



1. Urte dezente igaro dira Haurtzaro Ikastolan bukatu zenuela. Nola gogoratzen duzu azken urte hura? (DBH ondorengo ikasketen aukeraketa, esperientzia...)

Azken urte hura berezia izan zen. Alde batetik pena, hainbeste urte igarotako txokoa utzi beharra eta, bestalde poza, esperientzia berri baten atea irekitzeko gogoz. Ikasketen aukeraketa erraza izan zen niretzat, estetika ikasi nahi nuela argi bainuen. Aurrena batxilergoa egiten hasi nintzen, baina ez nintzen gustura sentitzen. Estetika ikasi nahi nuen akademian batxilergoa beharrezkoa ez zenez, uztea erabaki nuen. Estetika ikasi nuen bi urtez eta geroztik beste hainbat ikastaro egin ditut: masajea, naturopatia, iridologia, homeopatia...

2. Hartutako bidearekin pozik sentitzen al zara?

Bai, oso pozik gainera, ez dut inongo damurik. Oso gustuko dut nire lana eta egunero lanera gustura joatea bezalakorik ez dagoela iruditzen zait.

3. Zertan zabilta gaur egun?

Gaur egun estetika zentro batean nabil lanean. Ikasketak bukatu eta berehala hasi nintzen. Hala ere, oraindik ikasten jarraitzen dut. Akademietan asteburuetan ikasteko aukera ematen dutenez, lana eta ikasketak batera egin ditzaket.

4. Zein aholku emango zenioke gaur egun DBH 4. mailan dagoenari?

Nire aholkua benetan gustukoa duten bidea hartzea da. Batzuetan irtenbide hoberenak, soldata onenak, opor gehienak... dituen lanen ikasketak hartzea jotzen dugu. Baina oraindik garrantzitsuagoa iruditzen zait gustukoa den zerbait ikastea, azkenean bizitza guztia lanean pasako dugu eta, lehen esan dudana bezala, egunero lanera pozik joatea bezalakorik ez dago.

Bestalde, ematen du hemen aukeratu behar duzula zer egin nahi duzun zure bizitzarekin, baina bizitzak buelta asko ematen ditu eta beti dago aukera gustukoa ez bada beste bide bat hartzeko.

Xabier LETEri

Non hago, zer larretan
Oiartzungo poeta kantaria?

Non, erreka zikinen iturri garbiak
aurkitu nahi zituen
poeta tristeak?

Non, zer larretan,
makurka eta poliki
arrastaka bidea egindako
giza aberea?

Non, Euskal Herriatik aparte
bizi ezin zen eta neguko eguzkitan lanera joaten zen
gizon okupatua?

Non, zer larretan
uda beteko beroan
negu hurbilak izutzen ez zuen
gizon bakartia?

Non, amets handirik gabe
etsipenaren mugetan
gurekin bizi zen
eta ehorts ondoko omenaldirik desio ez zuen
langile baten semea?

Beharbada
Nafarroako goiko mendi hotzen
mendetako loak hartu hau betiko.

Beharbada
Zeru altuan dagoen Jaunak
izotzez jantzi hau
izarren hautsaren argitan.

Gu, ordea,
hemen gelditu gaituk oraindik.

Eta nik ere ez diat maite Euskal Herri nerea
berez tristura dakarten
arratsaldeetako bakardadean.
Baina non biziko nauk hemendik aparte?

Bai,
gu hemen gelditu gaituk, eta oraindik ere
haizea zetorrek ifarraldetik
eta hego berotik, ekaitza.

Hemen gelditu gaituk gu
eta ba al dakik nola?
Ardo mindua edanaz
historiaren tabernan,
nahiz muturreko galanki jaso
bueltan ezin eman.

Baina sinisten diat nik ere,
hartu hauen lur horretatik
landare berriak sortuko direla.
Landareetatik, zuhaitzak.
Zuhaitzetatik, loreak.
Loreetatik, fruituak.

Eta hik emandako fruituez elikatuko garela
hire ondoko gizon eta emakumeak.

Dakidalako irauten duela
orainak ere geroan.

Antton Kazabon
Oiartzunen, 2011ko otsailaren 17an



Zorionak batxiller berriei!

Desiorik onenak zuentzat Hautzaro Ikastolaren izenean





Mendiburu kalea, 2 · ☎ 943 49 47 19


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA


TAJO
Industrias Tajo, S. Coop.



GARRITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialdea
2. Pabiloia - P4 partzela
Ventas de Irun Auzoa - 20305 IRUN
Tfnoa.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@goicom.net

construcciones
ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 · Postakutxa 16 · Fax 943 493 772

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n · 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 · Fax: 943 260 250



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



AENOR
ER
Empresa
Registrada
ER-424/296



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea, 13 / 6. lokala · 20180 OIARTZUN · ☎ 943 491 641



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Salmeta · Mekanika · Karrozeria

Ihurrita Bidea, 13 / 1-6 lokalak · 20180 OIARTZUN · ☎ / faxa: 943 491 848 · 943 494 136



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapetan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91



- IBILGAILU IA BERRIAK
- URTEBETEKO BERMEAREKIN
- 120 HILABETERAINOKO FINANTZAKETA

☎ 943 260 065

Polígono Talaia, 6 · 20180 OIARTZUN



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 · Pol. Lanbarren · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 375 · Fax 943 493 462



KURKORRETAIO KIDAKETIK
GOSTOIA INTSARAL PILAPOSTOIA



ELORSORD KIDOLEGIA • BIDEA 24
T. 943 492 552 • V. 929 751 322
F. 943 490 591 • guma@elorsord.com
20180 OIARTZUN (Gorria)